

# Francis Jammes, Bidasoaz Liluraturik

francis jammes



**F**rancis Jammes-ek bere idazlanetan leku zabala eman zion Euskal-Hernari. Izan ere, Pirineo Garaiko Tour-nay hirian sortuarren, 1868. urteko abenduaren 2an, bizitzaren heldutasunean, Hazparne hautatu zuen bere egoitzatzat.

Idazle bezala, Clara d'Ellebeuse (1899) eleberriak eta *Les Grégoques chrétiennes* (1911-1912) poemak eman zituen ospea beranduko erromantikoko homi. Poeta bezala Henry Regnier-ek gorapatua izan zen eta zabalkunde handia lortu zuen.

Biziki maite zituen Gaztelania-zabarra, Andaluza eta Euskal Herria. Horregatik, Orthez hirian amitz urtez bizi ondorean, bertako notarian lana eginaz, han lortu zuen ospe onaren ondoriozkoa da hiri hartan Association Francis Jammes deritzan elkarte. Orain, mende erdi deli idazlea mundutik joan zenez, oroitzapenezko omenaldia eskaintzen diou elkarte. Orthez-dik koordinaturik zenbat ospakizun antolatuko dituzte Paben, St.-Bertrand-de-Communges eta Hazparden bertan. Hemen, bera hil zen Eihartzea deritzan etxean erakusketa jarriko omen dute ekainaren 15etik irailaren 15era: «La Guadekoupe au temps du grand pere de Francis Jammes» gaitzat harturik. Baina, omenaldia hastapena apaturiko Association horrek iragan abenduko buletina eskainiz izan da, Francis Jammes et l'Espagne gaiaz.

Natura zale hura gizon heldura iristean etorri zen Hazparnera, Eihartzea deritzan etxea bizileku hautatuz. Hiritarrek «Patriarche d'Hasparren» deitzen omen zioten. Eta bertan aurkitu zuen heriotza 1938ko azaroaren leian.

Bere gaztaman maitasunezko poema eta eleberriak ez ezik lizunak ere idatzi zituen, sentimendu panteista gisara agertuz; baina, Claudel-en bideetatik katoliko senera bi-

deratu zenetik bere bizia aldatu zuen. Lehen André Guideren adiskide zen hura erligioz eta tradiziozko balioez kezaturik biziko zen. Hala ere, inoiz ez zion naturari gibelik emanen.

Pierre Loti bezala, Bidasoaren Txingudi ingurua ere gogoko zuen, bere idazlanak aitortzen dutenez eta maiz aipatzen ditu Hendaia, Hondarribia eta Irun. Bidasoaz liluraturik egin bai zuen bertso hura:

*O doux trumeau que fut, dans mon printemps, Hendaye  
D'où j'entendais sonner ainsi qu'une ferraille  
Le bourdon de Fontarabie assise en l'air  
Tant la Bidassoa la baignait d'un flot clair!  
Que souvent j'ai mené ma jeunesse frivole  
De la rive française à la rive espagnole.*

Bere bi alaba eduki zituen Hondarribiko Damas de Saint-Maur ikastetxean eta Hendaiaiko Broca ostatuan egoten zen. Unamuno herbesterraturik han bertan egon zenean, Hendaia egonald hartan, ostatu berean aurkitu omen ziren baina apenaz izan zuten elkarrizketarik. Haien pentsametak eta sentimenak elkarrengandik urruti zebiltzan, ikuspegiz oso desberdinak zirenez. Ezinezko elkarrizketa Isidoro Fagoagak agertu zigun *Los poetas y el País Vasco*, liburuan. Abiapuntutzat molde desberdinetako omariak ziztuzten; Unamuno Sören Kierkegaard-en jarraitzaile zenez eta Jammes Paul Claudel-era. Bi mundu desberdin gaiak eta horien erabileraz.

Bere garaiko artisten artean maite zituen Ignazio Zuloaga, Ramiro Arrue eta Jose de la Peña. Azken honek oroipinturazko erretratu eder bat egin zion; R. Arruek ordea, *Le Mariage Basque* (Paris, 1926) idazlan luxokoarentzat irudi-edergarriak akuarelaz, André Lambert-en grabaduz liburutuak. Baina, 1932-an Donostiako Ateneoan *Beauté de l'Espagne* gaiaz hitzalda eman zuenean cibartararentzat izan ziren laudorioak, esanaz: «ces vers au grand Zuloaga pour que son génie en ressentite la couleur».

Belokeko Inda Abataren eritziz, F. Jammes-ek astoari egin zizkion poesiak Juan Ramón Jiménez-engan eragina izan omen zuten eta hortik Platero y yo idaztearen etorrta. Aipatu dugun elkartearen buletin horrek dakar konparaketazko lan bat Mayi Binard-Milhouk aurkeztua.

Bidasoa aldera etorriz, ulert erraza da inguru hometako ikuspegi, tximeleta-hili txanpelinak (*d'Anaryllis Belladone*), bertako kresal usaia, denak gogoko izatea; baina, ulertzen ez duguna, zera da, Hondarribiko huren kaleetan mañu eta isil-gordezko kutsuaz jabetzea, bera jabetu zen bezala. 1896an Xavier de Carlaillac-ek Bordelen argitaratu zuen liburua ez zuen ezagutzen nonbait. Hark beste ikuspegi bat emango zion.

Dena deli, ezin uka F. Jammes-ek Bidasoaz zuen lilura.

Juan San Martin